# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2145

*635/2013 EBAZPENA, apirilaren 2koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, M.ª Carmen Inmaculada Sánchez Martín andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako B Dibisio Korporatiboko zuzendariorde lanpostutik kentzen duena.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko 885/2012 Ebazpenaren bidez, M.ª Carmen Inmaculada Sánchez Martín andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako B Dibisio Korporatiboko zuzendariorde izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.ª Carmen Inmaculada Sánchez Martín Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako B Dibisio Korporatiboko zuzendariorde lanpostutik kentzea, egindako lana eskertuta.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2013ko apirilaren 7tik aurrera egongo da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Gipuzkoa Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 2a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.